

260

2021
UZTAILA
JULIO

berritu

Urnietako Udalaren aldizkaria



ON BIZI

AINTZANE LEDESMA (ON BIZIKO LEHENDAKARIA):

“herrian merkataritza indartsu bat izateko denok batera lan egin behar dugu, merkatariorik, udalak eta herritarrek”

On Bizi elkarteak berriro martxan jaritzeko lanak oso aurreratuta daude eta herriko merkataritza indartzeko ekimen desberdinak garatzeko gogoz daude bertako kideak. Aintzane Ledesma izango da elkartearen lehendakaria eta erronka handi baten aurrean dagoen arren, indarrarekin dagoela eta lan egiteko ilusioa duela aitortzen du. Herriak bizia izatea nahi du Ledesmak, eta horretarako, behin eta berriro errepikatzen du ezinbestekoa dela denak batera egotea, merkatariorik, Udala eta herritarrek. Horrenbestez, oraindik elkartera batu ez diren merkatariei gonbita luzatzen die, elkarte indartsu bat izatearen garrantzia azpimarratuz.

On Bizi bueltan dela esan daiteke? Elkar- tea biziberritzeko prozesua aurrera doa ezta?

Covid 19-a baino lehen On Bizi berreskuratzeko lehen urratsak ematen hasi ginen. Gero, egoera horrekin dena mantsotu egin zen, baina orain, indarrarekin gaude eta Udaletxearekin batera aurrera goaz, denak elkarrekin eta batera lan egiteko ilusioarekin.

Nolakoa izan da makinaria berriro mar- txan ipintzeko jarraitu duzun prozesua?

Egia da ez dela erraza izan eta nahiko genukeena baino motelago goazela. Halere, azken boladan abiadura hartu dugu, eta laster, %100ean funtzionatzen egongo garela uste dut.

Zenbat kide zaudete elkartearen?

Momentu honetan 25 inguru gaude eta herriko gainerako merkatariorik guztiak animatzen ari gara On Bizin apuntatzeko. Horretarako, Udalak eta On Bizik eskutitz bat bidali genien herriko merkatariorik guztiari, informazioa zabalduz eta elkartearen sartzeko bidali beharreko guztia zehaztuz. Jendea ari da pixkanaka batzen. Guk ahalik eta merkatariorik gehien elkartearen nahi dugu.



Zenbat eta kide gehiago orduan eta in- dar handiagoa izango du elkarteak ezta?

Elkar-
teak harturiko erabakiek eta aurrera eramango ditugun ekintzek merkatariorik guztiari eragingo digute eta onura denontzako izango da. Beraz, oso garrantzitsua izango litzateke merkatariorik guztiak batera egotea.

Lanak banatzerako orduan ere mesede- rako multzo sendoa izatea.

Hala da, bestela dena gutxi batzuen gainean geratzen baita, eta dena pisutsuagoa egiten da. Zentzu horretan eman nahi dugun hurrengo pausoa elkarteak lokal bat izatea da dinamizatzaile baten laguntzarekin. Hartara, egin beharreko zeregin batzuk pertsona horrek bideratuko litzuke. Gainera, gaia menperatzen duen pertsona baten laguntza izanda errazagoa izango da ekimen egokiak garatzea, izan ere, gu gure negozioekin loturiko gauzetan aritzen gara eta alor horien gaineko ezagutzak ditugu, baina ez gaude ohituta beste zeregin batzuetara. Beraz, pertsona horrek gauzak behar bezala egiten lagundu-
ko digu.

Elkar- teak dituen ordezkarien artean le- hendakaria zu izatea erabaki duzue. Erronka handia ezta?

Ardura handia da, baina elkartearen batzordea 6 pertsonak osatzen dugu eta erabaki guztiak denon artean eta adostuta hartzen ditugu. Ilusioz gaude, lan egiteko gogoarekin eta horrek lasaitasun handia ematen dit. Gure asmoa dinamika honi eustea, kide kopurua handitzen joatea da eta denak batera egotea da.

Azken finean guztien nahia berdina da.

Orain sentitzen dugu Udaletxeak ulertzen gaituela eta gurekin bat egin nahi duela. Guk Udaletxea behar dugu eta berriak gu ere bai. Beraz, merkataritza indartsu bat izateko denak batera lan egin behar dugu, merkatariorik, Udalak eta baita herritarrek ere. Herritarrek kontzientziaztea eta dinamika honetan barneratzea funtsezkoa da. Eta Udaletxea diodan ordezkaritza duten alderdi politiko guztiez ari naiz, denen inplikazioa behar dugu.

On Biziren helburuek sorrerako berdina izaten jarraituko dute edo bideorria al- datu egin nahi duzue?

On Bizi herriko merkataritza dinamizatze-ko helburuarekin sortu zen, eta gure asmoak berdina izaten jarraitzen du. Herriak bizia eta mugimendua izatea nahi dugu, kaleak hutsik eta itzalita egotea oso tristea izango litzatekeelako. Horretarako, kaleak girotzeko ekintzak egingo ditugu, gure formakuntzari jarraipena emango diogu eta herritarrentzako kanpaina desberdinak aurrera eramango ditugu. Dena den, argi dugu egin beharreko lehen gauza oinarri sendo bat sortzea dela, hau da, elkartearen behar bezala egituratzea ondoren gauzatu nahi ditugun ekintzak modu egoki batean egiteko.

Azken hilabeteak ez dira samurrak izan. Zein egoeratan dago herriko komer- tzioa?

Denetarik dago, baina kili-kolo daudenentzat oso momentu zailak dira. Elikagaien

dendak beti mantendu izan dira oso ondo, baina beste alor batzuk kaltetuak izan dira eta, adibidez, "Ni ere ostalaria naiz" kanpaina egin genuenean herriko tabernei laguntzea izan zen asmoa. Laguntza ekonomikoaz aparte guztion babesaren sentitu zutela esango nuke, eta merkataritza guztien arteko elkartasun hori asko eskertu zuten. Horrek izan behar du bidea, denok denontzako lan egitea.

Herritarrek eskertuko zuten pandemian zehar merkatariek egindako esfortzua, eta agian, bertakoa balorean jartzeko balioko zuen.

Hori izan da Covid 19-ak ekarri digun gauza on bakarra. Herrian geratu behar izan genuen garaian herrian kontsumitu dugu inoiz baino gehiago eta hori somatu da. Orain horri jarraipena eman behar zaio eta ohitura horiek mantendu egin behar dira.

Herritarrek herrian kontsumitzea da helburua, baina zergatik kontsumitu behar dute herrian eta zer eskaintzen diezue?

Tratu berezia ematen eta arreta berezia eskaintzen saiatzen gara. Gaur egun interneten edozer eros daiteke, baina internetek ez dizu emango aholku bat, zure gertuko merkatariek ordea, bai, zaindu egingo zaitu. Bezeroa maitatzea da plataforma horiei aurre egiteko dugun modua. Hori da gure indargunea, eta gure esku dagoen guztia egin behar dugu.

Horretaz gain ezinbestekoa da garatzea eta garai berrietara egokitzea.

Herriko komertzio batzuk oso lan ona egiten dute sare sozialetan eta Instagram bidez esaterako, asko saltzen dute batzuek, baina gure produktuak saltzen ditugu. Sare sozialak erakusleihen bat dira eta aprobetxatu egin behar ditugu gure produktuak ezagutzera emateko. Bestalde, dena batzuetan erosketaren zerrenda telefonoz edo whatsapppe egiteko aukera eskaintzen da gero bila joandakoan itxaron beharrik ez izateko. Horrelako gauzak egiten ari gara eta gehiago egin beharko ditugu. Gure esku ditugun tresnei zukua ateratu behar diegu. Herritarrei ahalik eta erraztasun eta erosotasun gehien ematen saiatu behar dugu.

Erakusleihoa aipatu duzu eta Udalak atal berezi bat sortu berri du bere webgunean herriko establezimendu guztiak batuz eta bakoitzaren gaineko informazio emanez.

Horrelako ekimenak oso garrantzitsuak dira, gutariko bakoitzak bere kabuz egiten duenaz gain erakusleihen bateratu bat

Urnietaren erakusleihen zabal eta erakargarria Udalaren webgunean

Urnietara gerturatu nahi duen orok herriaren inguruko eta bertan egin daitekeenaren gaineko informazio guztia eskura izan dezan atal berriak sortu ditu Udalak bere webgunean "Urnietan" leihorekin barruan.

Bertan herriaren historiari eta ondareari buruzko informazioa zegoen lehendik. Baita, herriko festei eta ospakizunei buruzko erreferentzia ere. Baina orain, turismoari eta komertzioari eskainitako atal zabal, baliagarri eta erakargarri bat ahalbidetu da lau azpiataletan banatuta: lo egin, jan eta edan, non erosi eta ikusi eta egin.

Azpiatal horietako bakoitzean, herriko establezimenduen gaineko informazioa topa daiteke; hala nola, argazkia, kokapena, ordutegiak, eta eskaintzen dituen zerbitzuak. Halaber, haien webguneetara eta sare sozialetara lotura zuzenak egiten dira. Atal horiek martxan jartzeko datu bilketa sakona burutu du Udalak merkatarien laguntzari esker.

Dena den, atal bizia izango da eta informazioa gehitzeko eta eguneratzeko aukera emango da. Horretarako interesa duten establezimenduen webgunean bertan dute aldaketak iradokitzeke bete behar den formularioa prozesua modu erraz eta sinple batean gauzatzeko.

izateko. Horren bidez, edozein jabetza edo lotarako leku begiratu dezakezu kokapenarekin batera, eta zerbait behar izanez gero non eros dezakezun ere ikus dezakezu.

Herritarrek herrian kontsumitzera bultzatzeko eskaintza on eta zabal bat izatea lagungarria da, eta azken hilabeteetan aukerak zabaldu egin dira.

Ilusio handia egin dit negozio berriak sortu direla ikusteak. Loradenda bat, garbitoki bat eta bizikletak konpontzeko denda bat ireki dira. Zenbat eta zerbitzu gehiago eskaini orduan eta behar gutxiago izango dute urnietarrek herritik irteteko. Orain adibidez, konponketak egiten dituen denda bat ere badugu, lehen ez zegoen horrelakorik. Dagoena mantendu eta indartzea, eta eremu berrietara irekitzea da asmoa.

Amplio y atractivo escaparate de Urnietan en la web municipal

El Ayuntamiento ha creado nuevas secciones dentro del apartado "Urnietan" de su página web para que todo aquel que quiera acercarse a Urnietan tenga acceso a la información más relevante sobre el municipio y lo que se pueda hacer en él.

En dicha sección ya había información sobre la historia y el patrimonio del pueblo. También, se hacía referencia a las fiestas y celebraciones locales. Pero ahora, se ha habilitado un amplio, útil y atractivo apartado dedicado al turismo y al comercio dividido en cuatro secciones: alojamiento, comer y beber, dónde comprar y ver y hacer.

En cada uno de estos apartados se puede encontrar información sobre los establecimientos de la localidad, con la fotografía, la ubicación, los horarios, y los servicios que ofrecen. Asimismo, se realizan enlaces directos a sus páginas web y redes sociales. El Ayuntamiento ha llevado a cabo una exhaustiva recogida de datos para la puesta en marcha de estos apartados gracias a la colaboración de los y las comerciantes.

No obstante, será un apartado vivo y se permitirá añadir y actualizar la información. Los establecimientos interesados en ello tienen a su disposición en la página web el formulario a cumplimentar para sugerir los cambios de forma simple y sencilla.

Gainera, On Biziren beste helburuetako bat negozio berriak sortzeko bidean laguntza ematea izango da, negozio bat ireki nahi duen edonori erraztasunak emateko. Ateak zabalik ditugu.

Orain hasitako bidearen emaitzak ikusteko denbora pixka bat itxaron beharko da. Nola egotea espero duzu bi urte barru?

Ni oso positibo nago eta nik uste dut indartsu egongo garela. Bizi dugun egoerak gure gertuko baloratzeke eta zaintzeko balio izan digu, eta herritarrek dinamika honetan jarraituko dutela uste dut. Beraz, bi urte barru hori horrela izan dela baieztatzea eta herritarrei eskerrak ematea gustatuko litzaidake. Guk behintzat gure esku dagoen guztia egingo dugu hala izan dadin.



Laguntza zerbitzua negozio berri bat abiarazi nahi duten ekintzaileentzat

Negozio berri bat martxan jartzeko asmoa duten ekintzaileei prozesu horretan laguntzeko xedez, Ekinean zerbitzua eskaintzen dute Beterri Buruntza eskualdeko sei udalek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan. Horrela, interesa duten pertsonen negozio-idea bat garatzen laguntzen zaie.

Bide horretan ondorengoak dira interesdunen eskura jartzen diren zerbitzuak:

- Aholkularitza pertsonalizatua.
- Talde-prestakuntza, gogoeta eta azterketa egiteko eta norberaren enpresa-idea abian jartzeko.
- Enpresa sortzeko dirulaguntzak.

Negozioa eskualdean jarriko duten pertsonen zuzendua

Zerbitzua negozioa eskualdean jartzeko asmoa duten pertsonen zuzendua dago eta besteak beste, proiektuen bideragarritasuna aztertzeko eta erabakiak informazio gehiagorekin hartzeko balio du. Prozesua banakako elkarrizketekin hasten da, proiektua zein puntutan dagoen eta zer premia dituen aztertzeko. Hala, banakako beharretara egokitutako ibilbide bat diseinatzen da ondoren.

Talde-saioen bidez, negozio-ereduari buruz hausnartzen da, ideia merkatuarekin kontrastatuz, eta finantzatzeko aukerak eta enpresen dituzten betebeharrak ezagutzen. Halaber, enpresa plana egiten laguntzen da eta baita negozioa abian jartzen ere. Eta behin lehen pausoak ematen hasita, negozioa sendotzeko aholkularitza ematen da. Horretarako, harremanetarako pertsona bat dago sortzen diren zalantzak argitzeko eta kontsultak egiteko.

Urte osoan zehar

Eskualdeko zerbitzu honek 2007. urtean hasi zuen ibilbidea eta urte hauetan guztietan 1.597 pertsona baino gehiago gerturatu dira zerbitzura, 1.139 negozio-idea aurkeztuz, 286 negozio-plan idatziz, 344 enpresa eratuz eta 550 enplegu berri sortuz.

Zerbitzua urte osoan zehar eskaintzen da eta ideien bat duen pertsona oro animatzen da laguntza eta aholkularitza jasotzera. Horretarako, deitu 688 776 267 telefonora edo idatzi merkataritzaurnieta@urnieta.eus helbidera.

Servicio de apoyo a las personas emprendedoras que quieran poner en marcha un nuevo negocio

Con el objetivo de apoyar a las personas emprendedoras que tienen previsto poner en marcha un nuevo negocio, los seis ayuntamientos de la comarca de Beterri Buruntza ofrecen el servicio Ekinean en colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa y Lanbide Servicio Vasco de Empleo. De esta forma, se ayuda a las personas interesadas a desarrollar una idea de negocio.

En este sentido, los servicios que se ponen a disposición de las y los interesados son los siguientes:

- Asesoramiento personalizado.
- Formación grupal para la reflexión, análisis y puesta en marcha de la propia idea empresarial.
- Subvenciones a la creación de empresa.

Dirigido a personas que pongan su negocio en la comarca

El servicio está dirigido a personas que tienen previsto poner su negocio en la comarca y sirve, entre otras cosas, para analizar la viabilidad de los proyectos y tomar decisiones con más información. El proceso se inicia con entrevistas individuales para analizar el punto en el que se encuentra el proyecto y sus necesidades. Así, después se diseña un plan adaptado a las necesidades individuales.

A través de sesiones grupales se reflexiona sobre el modelo de negocio, contrastando la idea con el mercado, y conociendo las posibilidades de financiación y las obligaciones de las empresas. Asimismo, se colabora en la elaboración del plan de empresa y en la puesta en marcha del negocio. Y una vez que se empiezan a dar los primeros pasos, se asesora para tratar de consolidar el negocio. Para ello, existe una persona de contacto para resolver las dudas que surjan y realizar consultas.

Durante todo el año

Este servicio comarcal comenzó su andadura en 2007 y durante todos estos años se han acercado más de 1.597 personas al servicio, presentando 1.139 ideas de negocio, redactando 286 planes de negocio, constituyendo 344 empresas y creando 550 nuevos empleos.

El servicio se ofrece durante todo el año y se anima a todas las personas que tengan alguna idea a recibir ayuda y asesoramiento. Para ello se puede llamar al teléfono 688 776 267 o escribir a merkataritzaurnieta@urnieta.eus

Urnietako baso, mendi eta zuhaitzak zaintzeko proposamenak burutu dituzte herriko ikasleek

"Eskolako Agenda 2030" programan parte hartu duten Urnietako ikastetxeetako ikasle ordezkariak urtean zehar egindako lana aurkeztu zioten Udalari, eta baso, mendi eta zuhaitzak zaintzeko proposamenak egin zituzten ekainaren 10ean online ospatu zen Udalbatzarrean. Jorge Segurado alkateak zoriondu egin zituen ikasleak buruturiko lan guztiarengatik, eta era berean, eskerrak eman zizkien gauzaturiko proposamenengatik, guztion ekarpen eta inplikazioarekin herriak jasagarritasunerantz pausoak ematen jarraitzea errazagoa izango dela azpimarratuz.

Berritasuna

Artelatz Ingurumen Zerbitzuaren eskutik herriko ikastetxeetan garatzen den programa honen helburua eskola komunitateak ingurugiroaren aldeko kontzientzia eta ohitura desberdinak bereganatzea da, herritar bezala hausnartzera eta parte hartzera bultzatuz. Aurten gainera, berrikutza batekin etorri da programa, izan ere, azken urteetan landuriko Eskolako Agenda 21 programa Eskolako Agenda 2030ean bihurtu baita.

Agenda berri hau, Nazio Batuetako Erakundeek adosturiko garapen jasangarrirako 17 helburuetan oinarritzen da, eta horien harira gauzatu da lanketa ikastetxeetan.

Aurten egindakoari dagokionez, 15. helburua izan dute abiapuntua: lehorreko ekosistemetako bizia, hain zuzen. Helburu oso zabala izanik, basoen inguruan zentratu dira. Hasieran, gaia ezagutzeko motibazio jarduera desberdinak burutu zituzten ikasleek; hala nola, bideo, ipuin eta jolasen bidez gaira gerturatu, hausnarketak burutu, galdetegiak egin, eta ikastola inguruko eremu berdeak aztertu. Halaber, basoak ernatzen proiektuaren barruan ezkurak bildu eta modu desberdinetan ereiten saiatu ziren, eta gero, haritz landareak landatu zituzten.

Urnietako egoeraren diagnostikoa egiteko zenbait irteera gauzatu dituzte, besteak beste, Berrasoeta parkera, Fatima ermitaren ingurura eta Adarra mendira. Horrela, zuhaitz desberdinak aztertzeko eta identifikatzeko aukera izan zuten, baita, urtaro bakoitzean itxura nola aldatzen duten ikusteko ere.



Ikasleen foroa

Ikastetxe guztiak ikasturtean zehar egindako lanketa ikasleen foroan partekatu zuten eta zenbait ondorio ateratu zituzten. Esate baterako, naturari dagokionean Urnieta oso gune aberatsa dela eta ibilbide zoragarriak dituela. Bestalde, hobetzeko gauzen atalean, eremuak hobeto ezagutzera emateko saiakera egitea eta gune berdeak hobeto zaindu beharra ondorioztatu zuten.

Hobekuntza horiek aurrera eramateko proposamenak gauzatu zituzten Udalbatzarrean eta alkateak kontuan edukitzeko eta herriko basoak eta eremu berdeak zaintzeko konpromezua adierazi zuen.

El alumnado de la localidad ha llevado a cabo propuestas para cuidar los bosques, montes y árboles de Urnieta

Las personas representantes del alumnado de Urnieta que ha participado en el programa "Agenda Escolar 2030" presentaron al Ayuntamiento el trabajo desarrollado a lo largo del año e hicieron propuestas para la conservación de bosques, montes y árboles en el pleno celebrado por vía telemática el 10 de junio. El alcalde Jorge Segurado les felicitó por todo el trabajo realizado y les agradeció las propuestas llevadas a cabo, subrayando que con la aportación e implicación de todos y de todas será más fácil que el pueblo siga dando pasos hacia la sostenibilidad.

Novedad

El objetivo de este programa, que se desarrolla en los centros escolares de la localidad de la mano de Artelatz Ingurumen Zerbitzua, es concienciar a la comunidad escolar de la importancia del medio ambiente, y al mismo tiempo, se pretende que adquieran hábitos para el cuidado del mismo. Este año, además, el programa ha venido con una no-

vedad, ya que el programa Agenda Escolar 21 elaborado durante los últimos años se ha convertido en Agenda Escolar 2030. Esta nueva agenda se basa en los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible acordados por las Naciones Unidas y el trabajo en los centros se ha desarrollado en base a ellos.

En cuanto a lo realizado este año, el punto de partida ha sido el objetivo número 15: la vida en los ecosistemas terrestres. Al tratarse de un objetivo muy amplio, se han centrado en torno a los bosques. Al principio, el alumnado realizó diferentes actividades de motivación para conocer el tema, como vídeos, cuentos y juegos. También realizó reflexiones, cuestionarios, y analizó las zonas verdes de la zona de la ikastola. Asimismo, dentro del proyecto "Basoak ernatzen" recogieron bellotas e intentaron sembrar de diferentes maneras, y además, plantaron plantas de roble.

Para realizar un diagnóstico de la situación de Urnieta han llevado a cabo diversas

salidas, entre otras, al parque de Berrasoeta, a la zona de la ermita de Fátima y al monte Adarra. De esta forma, tuvieron la oportunidad de analizar e identificar diferentes árboles, así como de ver cómo cambian de aspecto en cada estación del año.

Foro del alumnado

Todos los centros compartieron el trabajo realizado durante el curso en el foro de alumnos y alumnas, y sacaron algunas conclusiones. Por ejemplo, en cuanto a la naturaleza, determinaron que Urnieta es un espacio muy rico y con recorridos maravillosos. Por otro lado, en el apartado de cosas a mejorar, han llegado a la conclusión de que hay que intentar dar a conocer mejor las zonas verdes del municipio y cuidarlas mejor.

En el pleno celebrado el 10 de junio realizaron las propuestas para llevar a cabo estas mejoras y el alcalde se comprometió a tenerlas en cuenta y a hacer lo posible para preservar los bosques y las zonas verdes de Urnieta.

Egapeko eta Magaleko LH6-ko ikasleek parte hartze prozesuan buruturiko 5 proposamen gauzatuko dira eta beste bat sakonago aztertuko da

Parte hartze kultura 16 urtetik beherakoen artean barneratzen joateko asmoz, lehen aldiz, lanketa berezi bat burutu du aurrean Urnietako Udalak Magaleko eta Egapeko LH6-ko ikasleekin.

Esperientzia erabat aberasgarria izan da eta Udalak zoriondu egin nahi ditu beste behin ikasleak eta ikastetxeak prozesuan zehar erakutsi dutuen interesagatik, izan duten jarreragatik eta egin dituzten proposamen guztiengatik.

Aurrekontu irekien prozesuaren aurkezpenean azaldu zen moduan, prozesu honetara bideratuko diren 150.000 euroetatik 15.000 euro erabiliko dira LH6-ko ikasleek egindako proposamenetatik hautatu direnak gauzatzeko. Udaleko Hirigintza saileko teknikariek aztertutako jasotako proposamenak eta ondorengo bostak aurrera eramatea eta seigarren bat sakonago aztertzea erabaki dute.

Se llevarán a cabo 5 propuestas realizadas en el proceso participativo por el alumnado de 6º de EP de Egape y Magale, y otra se estudiará en profundidad

Con el objetivo de ir incorporando la cultura de la participación entre los y las menores de 16 años, por primera vez, el Ayuntamiento de Urnieta ha llevado a cabo un proceso especial con el alumnado de 6º de EP de Magale y Egape este año.

La experiencia ha sido totalmente enriquecedora y el Ayuntamiento quiere felicitar una vez más al alumnado y a los centros escolares por el interés que han mostrado a lo largo del proceso, por su actitud y por todas las propuestas que han realizado.

Tal y como se explicó en la presentación del proceso de presupuestos abiertos, de los 150.000 euros que se destinarán a este proceso, 15.000 euros se utilizarán para ejecutar las propuestas seleccionadas entre las realizadas por el alumnado. El personal técnico del departamento de Urbanismo del Ayuntamiento ha analizado las propuestas recibidas y ha decidido realizar las cinco siguientes y estudiar una sexta más a fondo.



1. Berrasoeta parkeko futbol zelaia hobetu

Mejorar el campo de fútbol del parque Berrasoeta

Berrasoeta parkean dagoen futbol zelaian futboleko porteria handiagoak ipiniko dira eta eremua hobetuko da. En el campo de fútbol situado en el parque de Berrasoeta se colocarán porterías de fútbol más grandes y se mejorará la zona.



2. Etxeberri plazako atzeko partean iturria jarri

Colocar una fuente en la parte trasera de la plaza Etxeberri

Etxeberri plazaren atzeko partean dagoen plazan iturri bat jarriko da egarria dutenek ura edateko aukera izan dezaten. Se instalará una fuente en la plaza situada en la parte trasera de la plaza Etxeberri para que las personas que tengan sed puedan beber agua.



3. Urbita kalean hesi bat jarri

Colocar una valla en la calle Urbita

Urbita kalean hesi bat jarriko da eremu horretako segurtasuna hobetzeko eta inor trenbidera erortzea saihesteko.

Se colocará una valla en la calle Urbita para mejorar la seguridad en esta zona y evitar que nadie caiga a las vías del tren.



4. San Joan plazako iturria hobetu

Mejorar la fuente de la plaza San Juan

San Joan plazako iturria hobetuko da ura modu egokiago batean irten dadin eta jendeak errazago edan dezan. Se mejorará la fuente de la plaza de San Juan para que el agua salga de una forma más adecuada y la gente beba de una manera más cómoda.



5. Guria taberna ondoko iturria ordezkatu

Sustituir la fuente que se ubica junto al bar Guria

Guria tabernaren ondoan dagoen iturria trabatuta dago, eta konponbide zaila duela eta konpondu arren, arazo bera errepikatuko litzatekeela kontuan hartuta, iturri berri bat jarriko da gertuko gunean. La fuente situada junto al bar Guria está atascada y teniendo en cuenta que tiene difícil solución y que aun solucionándolo se repetiría el mismo problema, se instalará una nueva fuente en una zona cercana.

Sakonago aztertuko da: Parkour eremu bat sortu

Parkourra egiteko eremu txiki bat sortzeko aukera sakonago aztertuko da. Aurrekontuak eskatuko dira eta prozesu honen barruan ezarritako mugetan sartzen bada egingo da. Hala balitz, eremurik aproposena zein den erabakiko litzateke.

16 urtetik gorako herritarren proposamenak aztertzen

Bestalde, Udaleko teknikariek 16 urtetik gorako herritarrek egin-dako proposamen guztiak aztertzen jarraitzen dute. Gogoratu behar da 267 galdetegi eman zirela ontzat aurrekontu irekien parte hartze prozesuan, eta beraz, lanketa potoloa eskatzen du. Azterketa amaiturikoan eta hobekuntzak lehenetsitakoan Udalak emango du harturiko erabakien berri.

Se estudiará más en profundidad: crear una zona de parkour

Se analizará más detalladamente la posibilidad de crear una pequeña zona de parkour. Se solicitarán presupuestos y se determinará si entra en los límites establecidos dentro de este proceso. De ser así, se decidiría cuál es la zona más idónea para su instalación.

Analizando las propuestas de la ciudadanía mayor de 16 años

Por otra parte, el personal técnico del consistorio continúa analizando todas las propuestas realizadas por las y los ciudadanos mayores de 16 años. Hay que recordar que se dieron por válidos 267 cuestionarios en el proceso participativo de los presupuestos abiertos, por lo que su análisis requiere un importante trabajo. Una vez finalizado el estudio y priorizadas las mejoras, el Ayuntamiento dará cuenta de las decisiones adoptadas.



Urnietako Udal egutegia osatzeko argazki lehiaketa Berdintasuna gaitzat hartuta

Urnietako Udalak, ohikoa den bezala, 2022. urteko egutegia eskainiko die herritarrei. Egutegia osatzeko argazki lehiaketa bat antolatu du, azaleko irudia eta hilabete bakoitzerako erabiliko diren argazkiak aukeratzeko.

Berdintasuna Urnietan izango da gaia

Aurten Udalak Berdintasunerako III. Plana eratzeko prozesua martxan jarri du eta horregatik, egutegirako gaia berdintasuna izatea erabaki da, Urnietan emakumezkoen eta gizonezkoen artean Berdintasuna islatzen duten eguneroko egoerak plaza-ratzeko asmoz: erantzunkidetasun egoerak etxeko lanetan eta zaintza lanetan; emakumeak gutxi agertzen diren egoerak ikustarazteko irudiak (lan arloan, kirol arloan, botere postuetan, zientzian, teknologikoetan eta maskulinizatutako arloan...); Urnietako emakume erreferenteak bistaratzeko egoerak; indarkeria matxistaren aurka gaitzespen irmoa islatzen duten egoerak; emakumeen ahalduzko proze-

suak aitortzen dituzten egoerak; lengoia eta irudi ez sexistaren erabilpena; hezkide-tzaren garrantzia islatzen duten egoerak; sexu eta genero identitate aniztasun egoerak; eta Urnietako emakume anitzak islatzen dituzten egoerak (adina, jatorria...), besteak beste.

Baldintzak

- Hamairu argazki hautatutako dira 2022. urteko Udal egutegia osatzeko.
- Argazkiek Urnietan kokatuak izan behar dute.
- Argazki bakoitzaren kokapen zehatza adierazi beharko da.
- Argazki bakoitzak izenburu bat izan beharko du.

Azaroaren 5a argazkiak aurkezteko azken eguna

Irudiak (egile bakoitzak gehienez 5 argazki aurkez ditzake) 2021eko azaroaren 5 arte aurkez daitezke bi modutara: Lekaio kultur etxean eta Udalaren webgunean.



Oinarriak

Parte hartzeko ezinbestekoa da lehiaketaren oinarriak ondo irakurtzea irudien behar teknikoak zeintzuk diren ezagutzeko, baita lehiaketaren prozesuaren eta baldintzen berri izateko ere. Lehiaketan partaide izateak oinarrien osoko onarpena eskatzen du.

Sariak

Argazki saritu bakoitzarengatik 40 euro jasoko du egileak.

Concurso fotográfico para elaborar el calendario municipal de Urnieta

El Ayuntamiento de Urnieta, como es habitual, va ofrecer el calendario del 2022 a la ciudadanía, y para ello, ha organizado un concurso fotográfico para seleccionar tanto la imagen de la portada como las fotografías que se utilizarán para cada mes.

El tema será la Igualdad en Urnieta

Este año, el Ayuntamiento ha puesto en marcha el proceso de elaboración del III. Plan de Igualdad de Urnieta, y por ello, se ha decidido que el tema para el calendario sea la igualdad en Urnieta con el objetivo de reflejar situaciones de igualdad entre mujeres y hombres a través del calendario: las situaciones de corresponsabilidad en las tareas domésticas y de cuidado; imágenes para visibilizar situaciones en las que las mujeres están poco presentes (en el ámbito laboral, deportivo, en puestos de poder, en ciencias, tecnológicas y masculiniza-

das...); situaciones de visualización de referentes femeninos en Urnieta; situaciones que reflejan un rechazo firme a la violencia machista; situaciones que reconocen procesos de empoderamiento de las mujeres; situaciones en las que se refleja la importancia de la coeducación, diversidad de género; o situaciones que reflejan la diversidad de mujeres de Urnieta (edad, procedencia...), entre otras.

Requisitos

- Se seleccionarán trece imágenes para confeccionar el Calendario Municipal del año 2022.
- Las fotografías deben estar localizadas en Urnieta.
- Se requiere señalar la localización concreta de cada imagen.
- Cada fotografía debe ir acompañada de un título.

El 5 de noviembre último día para presentar las fotografías

Las imágenes (un máximo de 5 fotografías por autor o autora) se pueden presentar hasta 5 de noviembre de 2021 de dos maneras: en la casa de cultura Lekaio o en la página web del ayuntamiento.

Consulta las bases

Es imprescindible consultar las bases para conocer las características técnicas que deben cumplir las imágenes y el proceso, así como las condiciones del concurso. La participación en el concurso supone la plena aceptación de estas bases.

Premios

Por cada una de las fotografías premiadas el autor o autora recibirá 40 euros.



Urnietako Udala LGTBI kolektiboaren aldarrikapenak babestuz

Ekainak 28 LGTBI kolektiboaren Nazioarteko Eguna da. Haren helburuak genero eta sexu aniztasuna ezagutzera ematea, kolektiboaren eskubideak aitortzea eta jasaten duten diskriminazioa salatzea dira.

Urnietako Udalak bat egiten zuen egunarekin eta aldarrikapenarekin, eta hori islatzeko ostadarraren kolorea duten aterkiak ipini zituen eraikineko balkoietan "Urnietan anitza, desberdintasunean berdinak" leloarekin batera.

El Ayuntamiento de Urnietá apoyando las reivindicaciones del colectivo LGTBI

El 28 de junio es el Día Internacional del colectivo LGTBI. Sus objetivos son dar a conocer la diversidad de género y sexo, reconocer los derechos del colectivo y denunciar la discriminación que sufren.

El Ayuntamiento de Urnietá se sumó al día y a la reivindicación, y para reflejarlo colocó varios paraguas del color del arco iris en los balcones de su edificio junto con el lema "Urnietá diverso, iguales en la diferencia".

Irekita dago euskara, hezkuntza eta ur inguruneke ikastaroak burutzeko bidaiak finantzatzeko dirulaguntzak eskatzeko epea

Tokiko Gobernu Batzarrak martxoan onartu zituen Urnietako udalerrian kultura, euskara, hezkuntza, kirol, haurreria, gazteria eta aisialdiko jarduerak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak. Oinarri horiek apirillean argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ordutik eskaerak egiteko epe batzuk zabalik daude. Bada, uztailaren 1ean ireki zen euskara, hezkuntza eta ur inguruneke ikastaroak burutzeko bidaiak finantzatzeko dirulaguntzak eskatzeko epea. Dirulaguntza horien eta gainerakoen inguruko informazio guztia eskura dago Udalaren webgunean.



Abierto el plazo de solicitud de las subvenciones para la financiación de actividades de euskera, educación y desplazamientos para cursillos en medio acuático

La Junta de Gobierno Local aprobó en el mes de marzo las bases reguladoras de la concesión de subvenciones durante el 2021 para la financiación de actividades de cultura, euskera, educación, deporte, ocio, infancia y juventud. Estas bases se publicaron en abril en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y desde entonces están abiertos algunos plazos de solicitud. Pues bien, el 1 de julio se abrió el plazo para la solicitud de subvenciones para la financiación de cursos de euskera, educación y viajes para la realización de cursos en medio acuático. Toda la información sobre estas y otras subvenciones está disponible en la página web del Ayuntamiento.

Egape Ikastola



Ikasleen ongizatea izan dugu helburu

Ez-ohiko ikasturte honetan pandemiak eskolako egunerokotasuna mugatu digu. Higiene eta segurtasun neurriez aparte, Hezkuntza sailak araudi berria egin du eta hainbat jarduera ezin izan ditugu burutu, bi eguneko irteerak, besteak beste. Hala ere, gure ikasleen ongizatea helburu izan dugularik eta eskola bizitza ahalik eta samurrena izateko, eguneko irteerak eta jarduera osagarriak antolatu ditugu. Ekintza hauek helburu didaktikoak eta pedagogi-

koak dituzte, horregatik HH-LHn Adarrazpira irteera egin dute, Albaolara, Tabakalerara, Chillida-Lekura, ... DBHkoak, berriz, Oñatiko natur-eskolara, Zumaiaiko flyschetara, Marizulora, ... besteak beste.

DBH 4. mailakoek ikasturte bukaerako irteera egiteko aukerarik izan ez dutenez, eguneko hainbat irteera prestatu dizkiegu ohiko ikasketa bidaia ordezkatzeko aldera eta Egape Ikastolan egindako ibilbideari bukaera goxoa eta xamurra emateko.

El bienestar del alumnado ha sido nuestro objetivo

Durante este curso extraordinario, el día a día de la escuela ha estado limitado por la pandemia. Además de las medidas de higiene y seguridad, el departamento de Educación ha creado una nueva normativa que ha impedido llevar a cabo algunas actividades, como las tradicionales salidas de dos días. Sin embargo, teniendo como objetivo el bienestar del alumnado y para que la vida escolar fuera lo más gratificante posible, hemos organizado salidas de un día, así como otras actividades complementarias. Estas actividades se han mantenido porque cumplen una función didáctica y pedagógica, así en El-EP han realizado salidas a Adarrazpi, a Albaola, a Tabakalera, a Chillida-Leku... y en ESO, entre otras, el alumnado se ha acercado a la escuela de naturaleza de Oñati, al flysch de Zumaia, a Marizulo...

Ya que el alumnado de 4º de ESO no ha tenido la oportunidad de realizar el viaje de fin de estudios, hemos organizado diferentes actividades para finalizar de forma agradable y placentera el itinerario realizado en Egape Ikastola.

Magale Ikastetxea

Magale-Salestarrak-eko ikasleen proiektua saritu dute Bilbon Elhuyarreko Zientzia eta Teknologia azokan

DBHko 3. mailako ikasleen "SINTOMAPP" proiektuak saria jaso du. Bertan, ikasleek telefono mugikorretarako aplikazio bat garatu dute, eta, horren bidez, programak, gaixoak dituen sintomen arabera zer gaixotasun izan dezake diagnostikatzen du.

Bigarren ebaluazioan, ikasleek gizartearen arazo edo behar bat aukeratu behar izan zuten, eta taldean lan eginez arazo horri erantzuteko ikerketa zientifiko edo proiektu teknologiko bat garatu behar izan zuten. Gai asko landu zituzte, oso desberdinak eta aberasgarriak, hala nola, medikuntza, biologia, exoplanetak, COVID partikulen airea iragazteko makina, audifonoa, desagertzeko arriskuan dauden animalien eta espezieen inguruko ikerketa, etab.

Otsailaren amaieran amaitu zituzten proiektuak, eta kanpoko epaimahai baten aurrean aurkeztu zituzten: Kristina Zuza

EHUko irakaslea, Irati Rekondo haurren minbiziaren ikertzailea eta Marta Irazoqui Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ikuskaria.

Proiektuak amaitu ondoren Elhuyar Azokara aurkeztu ziren. Horiek oso ondo baloratu zituzten ebaluatu zituzten iker-tzaileek.

SINTOMAPP proiektua Irati Calvarro, Enara Donavera, Leire Gonzalez eta Maria Sanchezek garatu dute. Proiektua garatzen ari ziren heinean, benetako iker-tzaile gisa Osakidetzako erizain eta medikuekin harremanetan egon ziren, gaixotasunak diagnostikatzeko eta programaren funtzionamendu egokia ebaluatzeko kontuan hartu behar zituzten sintomen inguruan ikertzeko. Medikuek batek programa ebaluatu eta bere iradokizunak eman zituzten.

Saloa Unanue erizain eta Osasun Publiko ikertzaileak eta Elhuyarreko ebalua-

tzaileak honakoa iruzkindu die saridunei: "Sintomaren arabera sailkapena eta lehenespene osasun-profesionalek erabiltzen dituzten tresnak izan arren, guztiz egokia iruditzen zait osasun-sistemaren saturazioa saihesteko proposatzen duten herritar orokorrei zuzendutako aplikazioa".

Olatz Pampliega Ormaetxea Neurozientzietan eta Zelulen Biologian aditua eta Achucarro Basque Center for Neuroscience-ko ikertzailea da, eta proiektuaren ebaluazioan honako hau dio: "Aukeraturako gaia eta metodologia oso interesgarriak dira". "Gauza zehatzei buruz hitz egiteko, kanpoko baliozkotze independente bat bilatu duzue (bideo medikoa), eta oso garrantzitsua da; beraz, bikain egin duzue puntu honetan. Gure ikerketak laborategian argitaratzeko balorazio independentea dugu eta ez da batere erraza. Bikain pasa duzue proba medikoa!"

Udako ordutegiak Udal eraikinetan

Urnietako Udal eraikin batzuk ordutegi aldatu egin dute udarari begira. Lekaio, Sarobek eta liburutegiak 9:00etan zabalitzen dituzte ateak orain, eta 14:00 arte daude irekita. Ikasketa gelak ere ordutegi berbera du astelehenerik ostiralera, baina larunbatetan berriz, ordu erdi beranduago hasten da zerbitzua eskaintzen amaiera ordua mantenduz.

Gazte Informazio Puntuak bestalde, 10:30-13:00 bitartean funtzionatuko du uztaieran, eta abuztuan ostera, itxita egongo da. Kiroldegia bere aldetik, 9:00-22:00 bitartean dago irekita astelehenerik ostiralera eta aseturuetan ostera, 9:00-21:00 bitartean.

Bertan herritararen arretarako zerbitzuak azkenik, ohiko ordutegi mantentzen du, hau da, astelehenerik ostiralera 7:30-11:00 eta 11:30-

14:30. Itxita dagoen ordu erdiko tartea garbiketa lanak egitera bideratzen da.



Horarios de verano en los edificios municipales

Algunos edificios municipales de Urnieta han modificado su horario de cara al verano. Lekaio, Sarobe y la biblioteca abren sus puertas ahora a las 9:00 y están abiertas hasta las 14:00. La sala de estudios también tiene el mismo horario de lunes a viernes, pero los sábados comienza a dar servicio media hora más tarde manteniendo la hora de finalización.

El Punto de Información Juvenil, por su parte, funcionará entre las 10:30 y las 13:00 horas en julio y permanecerá cerrado durante el mes de agosto. El polideportivo está abierto de lunes a viernes de 9:00 a 22:00 horas y los fines de semana de 9:00 a 21:00 horas.

Por último, el servicio de atención ciudadana Bertan mantiene su horario habitual, de lunes a viernes de 7:30 a 11:00 y de 11:30 a 14:30. El intervalo de media hora que permanece cerrado se destina a realizar labores de limpieza.

URNIETAKO KZ-GUNEA

943 023 682 · www.kzgunea.eus

UZTAILEKO ORDUTEGIA HORARIO DE JULIO

16:00-20:00

ASTELEHENETIK OSTIRALERA / LUNES A VIERNES

Komunitate birtualak:

Zure elkartearen doako webgunea sortzeko aukera eskaintzen dizugu.

IT Txartela:

Teknologia berrien gaineko ezagupideen egiaztapena.

IKASTAROAK (ASTELEHENETIK OSTIRALERA):

Oinarrizko Internet: Internet mundua, PC bat ezagutu, nabigazioa, posta elektronikoa... eta gehiago.

Software libre: ofimatika mundua, software librearen baldintzak, baimenak eta abar.

Sare Sozialak 2.0: sare ezberdinak erabiliz, komunikatu eta zure dokumentuak konpartitu.

Irudia: imaginazioa esna ezazu grafiko aplikazioak erabiliz.

Google Apps: zure eta zure enpresaren antolakuntza errazteko tresnak.

Smartphoneak eta tabletak: zure gailuak eta aplikazio ospetsuenak erabiltzen ikasi.

Programazioa eta garapena: programazio tresnak erabiltzen ikasi.

Comunidades virtuales:

Te ayudamos a crear una página web gratuita para tu asociación.

IT Txartela:

Certificación de conocimientos en nuevas tecnologías.

CURSOS (DE LUNES A VIERNES):

Internet básico: entra en el mundo de Internet; qué es un PC, correo electrónico... y mucho más.

Software libre: ofimática, características del software libre, tipos de licencias, etc.

Redes Sociales 2.0: comunícate y comparte tus documentos a través de las diferentes redes sociales.

Imagen: da rienda suelta a tu creatividad con las aplicaciones gráficas de código abierto.

Google Apps: herramientas que facilitarán tu organización personal y la de tu empresa.

Smartphones y tablets: aprende a utilizar tus dispositivos y las aplicaciones más populares.

Programación y desarrollo: aprende a utilizar herramientas de programación.

IKASTAROAK / CURSOS

Ofimatika tresnak - LibreOffice

Herramientas Ofimáticas - LibreOffice
01-14 16:00-18:00 Castellano

Google Argazkiak. Antolatu hodeian zure argazki guztiak

Google Fotos. Organiza todas las fotos en la nube
15-16 16:00-18:00 Euskara

BakQ ziurtagiria Certificado BaKQ

19 16:00-18:00 Castellano

Google Aplikazioak zure Smartphonean

Aplicaciones Google en tu Smartphone
20-30 16:00-18:00 Euskara

URRUNEKO HEZKUNTZA FORMACIÓN A DISTANCIA

Komunikazio ez-presentzialerako tresnak

Herramientas para Comunicación No Presencial

Ikasi HTML programatzen

Aprende a programar en HTML

Twitter. Momentuan momentuko informazioa

Twitter. La información al instante

Zibersegurtasuna. Arriskuak, zaurgarritasunak eta mehatxuak

Ciberseguridad. Riesgos, vulnerabilidades y amenazas



Abian da Lurraldebusen kontzesio berria

Gipuzkoako Foru Aldundiak Lurraldebusen bidez eskaintzen duen autobus zerbitzu berria abian da uztailearen 1etik aurrera. Horrela, Lurraldebus sarearen emakida-sistema osatu da, flota berritua mugikortasun jasangarriaren egungo irizpideen arabera diseinatu delarik, izan ere, emisio kutsagarri gutxiako autobus kopuru handiena duen kontzesioa da.

Kontzesio berri honek 30 autobus hibrido ditu estreinatze-ko. Horietatik 10, 15 metrokoak dira, 53 eserlekurekin, 17 zutik eta gurgil-aulkientzako 2 espaziorekin. Beste 20 autobusek 12,75 metro dituzte, 41 pertsona eserita, 27 zutik eta gurgil-aulkientzako 2 gune. 10 urte baino gutxiagoko 11 autobusek osatzen dute flota, aurreko enpresa emakidadunak subrogatuta.

Berrikuntza hori bat dator Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak ingurumen-estrategia globalarekin eta klima-aldaketaren aurkako Gipuzkoa Klima 2050ekin duen konpromisoarekin. Emakida hau martxan jartzeak 10.000.000 euroko inbertsioa ekarri du, eta flota moderno eta ekologiko bat izateko balio du, Lurraldebusen autobus-flota osoa 2040an hibridoa izan dadin lortzeko urrats erabakigarria emanez.

Eguneko, gaueko eta ospitaleetako zerbitzua

Orain arte bezala, Urnietatik hiru autobus linea igaroko dira, egunez, gauez eta ospitalera joateko zerbitzua eskainiz. Hori bai, autobus linea horiek identifikatzen dituzten kodeak aldatu egin dira:

- **BU05:** Andoain – Urnieta – Hernani – Donostia
- **BU06:** Andoain – Ospitalea
- **BU40G (gauekoa):**
Andoain – Urnieta – Hernani – Astigarraga – Donostia

Ordutegiak

Urnietan zerbitzua eskaintzen duten hiru lineen ordutegiak Urnietako Udalaren edo Lurraldebusen webguneetan kontsultatu daitezke.

En marcha la nueva concesión de Lurraldebus

El nuevo servicio de autobús que ofrece la Diputación Foral de Gipuzkoa a través Lurraldebus ya está en marcha y lo hace con una flota renovada, moderna y diseñada conforme a los criterios actuales de movilidad sostenible, ya que es la concesión con mayor cantidad de autobuses de bajas emisiones contaminantes.

Esta nueva concesión que es más sostenible cuenta con 30 autobuses híbridos a estrenar. 10 de ellos son de 15 metros dotados con 53 plazas sentadas, 17 de pie y 2 espacios para sillas de ruedas. Los otros 20 autobuses son de 12,75 metros, con capacidad para 41 personas sentadas, 27 de pie y 2 espacios para sillas de ruedas. La flota se completa con 11 autobuses de menos de 10 años subrogados de la anterior empresa concesionaria.

Esta actuación se encuentra alineada con el compromiso del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa con la estrategia global medioambiental y de lucha contra el cambio climático Gipuzkoa Klima 2050. La puesta en marcha de esta concesión ha supuesto una inversión de 10.000.000 de euros y sirve para contar con una flota moderna y ecológica dando un paso decisivo hacia el objetivo de lograr que toda la flota de autobuses de Lurraldebus sea híbrida en 2040.

Servicio de día, noche y hospitales

Al igual que hasta ahora, habrá tres líneas de autobús que pasen por Urnieta, ofreciendo servicio de día, de noche y para ir al hospital. Eso sí, se han modificado los códigos que identifican las líneas que en adelante serán los siguientes:

- **BU05:** Andoain – Urnieta – Hernani – Donostia
- **BU06:** Andoain – Hospital
- **BU40G (nocturno):**
Andoain – Urnieta – Hernani – Astigarraga -Donostia

Horarios

Los horarios de las tres líneas que ofrecen servicio en Urnieta se pueden consultar en la página web del Ayuntamiento de Urnieta y de Lurraldebus.